

*Lehendakari jauna,*

*Bizkaiko Gotzain Jauna,*

*Gainontzeko herri agintari, Labayrukide eta lagunok,*

*Arratsalde ON!!*

**Bide barriak.** Labayru Ikastegia apur bat ezagututa, egingo neuke Lauaxetak idatzitako *Bide barriak* gogoan hartuta jarri dauala goiburua.

Sasoi baten, “dakigunetik ez dakigunera” izan zan Labayrun ikasi genduan jarraibidea. Etxean ikasitakoa, inguruan jasotakoa, mundua ulertzeko modua.... horixe da, *dakiguna da*, ikasteko orduan abiaburu nagusia. Pedagogi arau unibertsal hau, guk Labayru Ikastegiaren eskutik barruratu genduan betiko.

Barritzailea zan Labayru Ikastegia. Ederto asmatu eban zeintzuk ziran orduko euskal gizartearen eskaria eta bere eginkizuna.

Hainbeste bizkaitar –eta ez bakarrik bizkaitarrak- euskal kulturaren uztarrira ekarri ginduzan.

Labayruren eskutik ikasi genduan bazirala euskal intelektualak, euskaldunok baginala nor, kulturaduna zala geure herria be....

Labayruren eskutik ikasi genduan gure ohiturak, hizkuntza, jaiak eta bizimodua bera be, euskal kulturaren adierazpide zirala eta halaxe hartzen ebela esangura eta zentzun osoa. Hori guztiori ikasi genduan.

Baina Labayru ez dago geldirik. XXI. mendean aurrera goazela-eta, bide barriak bilatu eta aurkitzeko erabagia hartu eta hausnarketa sakona burutu dau, euskal gizartearenganako konpromisoa barriztatuz.

Ondo daki Labayruk, horixe erakusten dau bere lanerako estiloak, kulturak uritartasun balioak dituala beragaz; geure burua kokatzen eta inguruko giza taldea ulertzen laguntzen deuskula kulturak, eta, garrantzikoena dana, inguru hori komunitate bilakatzen. Horrexegaitik buztartzen ditu Labayruk hain egokiro kulturgintza eta gizartegintza.

Zorionez Labayru Ikastegia ez dago bakarrik, ez bere filosofian ezta bere jardunean be. Bizkaian eta Euskal Herri osoan badira euskal kultura sortzen, ekoizten eta hedatzen dabilzan erakundeak eta eragileak; esfortzua, ilusinoa eta etenik bako lana eginez, kalidade oneko egitasmoak burutzen ahalegintzen diranak.

Bagara, izan be, Euskal Kulturgintzan gabiltzan herri aginte demokratikoak. Geuri jagogu koordinazioa, alkarlana eta gizartearen bizitasuna jagotea. Eta, zuzenean jardutea be bai, gizarte ekimena ailegatzen ez dan toki eta eremuetan, eskubide-bardintasunaren zaintzan. Sasoi bateko auzolana, orain publiko-pribatu alkarlana esaten deusaguna da gakoa. Ezinbestekoa dogu,

—alde batetik, administrazio bakar baten jabe go bakarreko kultura homogeneoaren arriskutik urruntzen gaituelako;

—eta bestetik, merkatu hutsez ezarritako kultura pribatizatzailetik be babesten gaituelako.

Justu horretantxe erakutsi deusku maisutza Labayru Ikastegiak, erakunde publikoakaz eta gainontzeko kultur eragileakaz alkarlana bateratzen. Horrexegaitik jarraitzen dau izaten Bizkaian euskal kulturgintzan dogun azpiegitura estrategikoa.

Tiempos duros. Tiempos en los que no es fácil sostener que la cultura es lo esencial, lo que nos hace ser quienes somos. Lo que nos ayuda a desarrollar el pensamiento crítico, a entender mejor el valor de la diferencia y de la solidaridad.

Una comunidad culta siempre estará más cerca de ser una comunidad empática y solidaria. Y no debemos permitir que cale en nosotros el discurso que entiende divergentes la vitalidad social y la cultura de un país. Es justo al contrario: es imposible hacer sostenible la una sin la otra.

La cultura, en nuestro caso, es precisamente, un extraordinario motor para ir construyendo una identidad vasca compartida.

Por ello, es nuestra obligación seguir intentando una política cultural abierta, de nación democrática. Y esto solo es posible contando con un ecosistema cultural sostenible, alentado por unas instituciones públicas comprometidas con el impulso a la iniciativa social. De ahí la importancia estratégica de instituciones como Labayru, permanente impulsora del ecosistema cultural vasco.

Esa ha sido, precisamente, con esa u otra terminología, la apuesta permanente de Labayru. Y en ella sigue, con su decisión de convertir la crisis en un tiempo y un espacio de oportunidad. Labayru XXI. Bide barriak.

Zorionak bihotzez.